



2011ko uztailaren 22a

HERRIKO KONTSEILUKO
kide zairen jaun-andereak

Erref.: JMB/MHM – 725/2011

Gaia :

HERRIKO KONTSEILUKO BILKURAREN

BILDUMA

2011ko UZTAILAREN 20an, ASTEAZKENEAN HERRIKO ETXEAN

BERTARATUAK: Guy POULOU Jn., Auzapeza, LOLOM Jn., BERLAN Jn., DOSPITAL And., WATIER DE CAUPENNE And., MACHENAUD Jn., MINTEGUI And., HIRIART Jn., IDIARTEGAY PUYOU And., URBISTONDOY Jn., ANCIZAR And., IBARLOZA Jn., CAPDEVILLE And., ANIDO Jn., ORIVE And., ERRANDONEA Jn., GOURAUD Jn., MINTEGUI Jn., DUGUET And., TAPIA And., MADRID Jn.

AHALORDEAK: LALANNE Jaunak BERLAN Jaunari, COSTE Jaunak LOLOM Jaunari, HARDOY Andereak ORIVE Andereari, GLOAGUEN Andereak DOSPITAL Andereari, BAZERQUE Andereak GOURAUD Jaunari.

BARKATUAK: DUBARBIER And., GOUAILLARDET Jn., UGARTEMENDIA And.

2011ko uztailaren 12ko deialdia

Guy POULOU Auzapez Jaunaren lehendakaritzapean.

GAI ZERRENDA

I/ Gai Orokorrak

- 1) 2011ko apirilaren 28ko Herriko Kontseiluko Bilkura Bildumaren onespena
- 2) Herriko Kontseiluak Auzapezari eman ahalordea (Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L 2122-22 artikulua)
- 3) Novelty karrika itsuaren herriko jabetza: Office 64 de l'Habitat erakundeari salmenta

II/ Finantza Gaiak

- 1) A.D.I.P.G.N.: Kali joko deskubritzea, inimizioa eta hobekuntza
- 2) Balio ezetzan sartzea
- 3) Goi-mailako irakaskuntzarako bekak
- 4) Goi-mailako irakaskuntzarako bekak (Erasmus Programa)
- 5) Elkarteei diru-laguntzak: 2011. urtea
- 6) Herri Harresituak Mendebaldeko Pirinioetan Elkarte
- 7) Gazteria Zerbitzua: Diru-laguntza baten ematea
- 8) Argindarraren gaineko zergaren tasa 2012tik aitzina

- 9) Haurtzaroa Gazteria Hitzarmena: Auzapezaren ahalmena
- 10) Office 64 de l'Habitat: Lankidetzaren Hitzarmena.
- 11) Arte eta Historiako Hiri Labela: Hautagaitza eraketaren hasiera

III/ Herriko Langilegoa

- 1) Lanpostu aldaketa barneko izendatzeen ondotik
- 2) Lanpostu aldaketa konkurtso baten erdiespenaren ondotik
- 3) Lanpostu aldaketa erretreta hartze baten ondotik
- 4) Ziburuko eta Urruñako Polizien arteko Mutualizazio Hitzarmenaren berriztapena
- 5) Aprestuz baten errezibitzea

IV/ Zerbitzu Teknikoak

- 1) San Bizente eliza: Orga barroko baten eraikuntza
- 2) Ziburu, Hendaia, Donibane Lohizune eta Urruñako herrien arteko manaketa-elkarte baten eraketa.

Biltzarrak Pierre BERLAN Jauna bilkura idazkari gisa izendatu du.

I/ Gai Orokorrak

1) 2011ko apirilaren 28ko Herriko Kontseiluko Bilkura Bildumaren onespena

Herriko Kontseiluak 2011ko apirilaren 28ko bilkuraren bilduma aho batez onartu du, 7. orrialdean den bozka baten aldaketa bat aintzat harturik.

2) Herriko Kontseiluak Auzapezari eman ahalordea (Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L 2122-22 artikulua)

Ordezkaritza honek honako hitzarmenak eta erabakiak izenpetzea ahalbidetu du:

- 2011ko apirilaren 29an sinatua izan den hitzarmena KANTA DONIBANE elkartearekin, Roger Berné Elkartearen Etxearen baitan gela bat urririk esku ezartzeko 2011ko maiatzaren 1etik 2012ko abuztuaren 31ra;
- 2011ko apirilaren 29an sinatua izan den okupazio hitzarmena Karine DE LA ROSA Anderearekin Zokoa/Untxin gaineko hondartzaren parte batean kokaleku baterako 2011ko ekainaren 1etik, 2012ko irailaren 30era;
- 2011ko maiatzaren 26an sinatua izan den hitzarmena Ziburuko Turismo Bulegoarekin Serorategia urririk esku hartzeko 2011ko ekainaren 1etik 2012ko abenduaren 31ra;
- 2011ko ekainaren 7an TOURNAIRE Abokatua izendatzearen erabakia herriaren interesen defentsa hartzeko eta Baionako Instantzia Handiko Auzitegian premiazko helegite bat pausatzeko, «Jean Poulou Kirol Zelaia» deituriko herri eremua okupatzen duten auto eta karabanen kanporatzea epaitua izan dadin.
- 2011ko irailaren 15ean sinatua izan den hitzarmena Donibane Lohizuneko LION'S CLUBarekin, 2011ko ekainaren 15etik 3 hilabeterako materiala (desfibrilagailuak) urririk esku ezartzeko.
- 2011ko ekainaren 21ean sinatua izan den zerbitzu prestatze hitzarmen bat Mikel DALBRET Jaunarekin.

TAPIA And.: *«Zein irizpideren arabera esleitzen duzu Errekoletoen gela?*

Mikel Dalbretok okupatuko du gela eta hori biziki ongi iduritzen zait, baina nolaz, beraz, Ziburuko elkarteek eskaera egiten dutelarik, iaz bezala antzezlan baten kari adibidez, ezezkoa erantzun zitzaien segurtasun baldintzak arrazoi.

Hau, bidegabea dela pentsatzen dut.

Irizpide inpartzial batzuk finkatu behar lirateke eta denei betearazi behar litzaizkieke, gisa berean. Zergatik ez genituzke kultura batzordearen baitan finkatuko? »

Auzapez Jaunak, zehaztu du obrak gauzatuak ez diren bitartean, besteak beste segurtasun mailatakoak, Ziburuko Herriko Etxeak antolatzen dituen kultura ekimenak baizik ez direla onartuak.

Gela hau erakusketei eta kontzertuei eskainia izan behar da Herriko Etxearen gidaritzapean. Aldiz, alokatzeko baldintzak laster aztertzea komeni izango da.

3) Novelty karrika itsuaren herriko jabetza: Office 64 de l'Habitat erakundeari salmenta

Txostengilea: Claude LOLOM Jn.

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideeri azaldu die Office 64 de l'Habitat-ko Zuzendari Jaunak Novelty karrika itsuan, Ziburun, kokatua den herriko jabetza eskuratzeko proposamen bat helarazi diola, AH sekzioko 378 zenbakian kadastratua.

Auzapez Jaunak zehaztu du aurkeztu izan zaion antolaketa proiektuaren baitan, alokatzeko etxebizitza sozialetako programa baten sortzea badela.

Auzapez Jaunak zehaztu du jabetza honen salmenta prezioa 310.000 eurotan finkatua dela. Horri 15.000 euro erantsi behar zaizkio, hau da Ziburuko Herriak pagatu duena SCI NOVELTY enpresak Eraikitze Baimen eskaerarekin ezagutu dituen gastuen araberakoa, Eraikitze Baimen horren abantailen uztearen ordainez.

Azalpen honen jarraian eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Jabetza hau, Office 64 de l'Habitat-ri, 325.000 eurotan saltzea **ERABAKI DU**,
- Auzapez Jaunari salmenta engaiamendua eta behin betiko salmenta agiria bezalako lotuak diren beste dokumentu guziaz sinatzeko **BAIMENA EMAN DIO**.
- Salmenta engaiamendua honen eta behin betiko salmenta agiria bezalako lotuak diren beste dokumentu guzientzako PAOLI Abokatua **IZENDATU DU**.

Oharrak:

MADRID Jaunak eraikiak izanen diren etxebizitzaren kopurua eskatu du.

Auzapez Jaunak zehaztu du 12 edo 13 etxebizitza eraikiko dituztela baita iduriz zaindariaren apartamentu bat ere.

AHO BATEZ ONETSIA

II/ Finantza Gaiak

1) **A.D.I.P.G.N.: Kali joko deskubritzea, inimizioa eta hobekuntza**

Txostengilea: Claude LOLOM Jn.

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideeri oroitarazi die A.D.I.P.G.N (Association Découverte, Initiation et Perfectionnement au Golf de la Nivelle edo Urdazuriko Kali Joko Deskubritze, Iniziazio eta Hobekuntza Elkarte) Urdazuriko instalazioetan kali joko eskolaren funtzionamendua segitzea engaiatu dela 8 eta 15 urte arteko 12 haur ziburutarrentzat 2010-2011ko ikasturterako.

Elkarteak bere gain hartzen ditu monitoreen ordainsariak eta materialaren eskuratzeko eta mantentzea.

Horren ordez, Auzapez Jaunak elkarteari 600 € ematea proposatu du, erran nahi baitu, 50,00 € kurtsu horiek segitzen dituen haur bakotx.

Auzapez Jaunak zehaztu du araberako kredituak 2011ko herriko aurrekontuan aurreikusiak direla 658. artikuluan.

Azalpen honen jarraian, 2011ko uztailaren 11ko Finantza Batzordearen iritzia hartu ondotik, eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- A.D.I.P.G.N elkarteari 600 € ematea **ERABAKI DU**.
- Auzapez Jaunak **ZEHAZTU DU** araberako kredituak 2011ko herriko aurrekontuan aurreikusiak direla 658. artikuluan.

AHO BATEZ ONETSIA

Patrick ERRANDONEA Jaunaren sartzea

2) Balio ezetzan sartzea

Txostengilea: Claude LOLOM Jn.

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideeri azaldu die Ogasunaren Kontalariak ezin izan duela behe honetako diru-sarreraren tituluen bilketari ekin eta ondorioz, eskatzen du 264,00 € balio ezetzan sartzea.

Ekitaldi urtea	Tituluaren erreferentzia	Zordunaren izena	Kobratzeko gelditzen den zenbatekoa	Aurkezpenaren arrazoina
2008	T-34	ECHEVERRIA JOSE Nc	237,60	Emaitzarik gabeko agiri konbinazioa
2009	T-427	CERE MAIDER Nc	26,40	Eragin gabeko jarraipena
		OROTARA	264.00	

Azalpen honen jarraian, 2011ko uztailaren 11ko Finantza Batzordearen iritzia hartu ondotik, eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Gain honetako diru-sarreraren tituluak balio ezetzen sartzea **ERABAKI DU**.

AHO BATEZ ONETSIA

3) Goi-mailako irakaskuntzarako beka

Txostengilea: Claude LOLOM Jn.

Auzapez Jaunak proposatu du, 2010/2011 ikasturterako, Kontseilu Orokorrak Ziburuko ikasleei ematen dien goi-mailako beka zenbatekoaren % 10eko diru-laguntza ematea, 65 euroko minimo batekin.

Azalpen honen jarraian, 2011ko uztailaren 11ko Finantza Batzordearen iritzia hartu ondotik, eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Auzapez Jaunak Kontseilu Orokorrek Ziburuko ikasleei ematen dien goi-mailako beka zenbatekoaren % 10eko diru-laguntza ematea **ERABAKI DU**, 65 euroko minimo batekin.

AHO BATEZ ONETSIA

4) Goi-mailako irakaskuntzarako beka (Erasmus Programa)

Txostengilea: Claude LOLOM Jn.

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei azaldu die ERASMUS programaren baitan (ikasle trukaketa europar mailan), Eskualdeko Kontseiluek ERASMUS beka bat ematen dietela ikasle batzuei.

Auzapez Jaunak 2010/2011 ikasturterako Eskualdeko Kontseiluak ZIBURUko ikasleei ematen dien beken % 10eko diru-laguntza isurtzea proposatu du.

Azalpen honen jarraian, 2011ko uztailaren 11ko Finantza Batzordearen iritzia hartu ondotik, eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Auzapez Jaunak Eskualdeko Kontseiluak ZIBURUko ikasleei ematen dien beken % 10eko diru-laguntza isurtzea **ERABAKI DU**, 2010/2011 ikasturterako.

AHO BATEZ ONETSIA

5) Elkarteei diru-laguntzak: 2011. urtea

Txostengilea: Claude LOLOM Jn.

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei azaldu die elkarte desberdin batzuk diru-laguntzak eskatu diotela Herriko Etxeari 2011. urterako.

Auzapez Jaunak honako diru-laguntza hauek emaita proposatu du:

Egozpena	Elkartearen izena	Eskaeraren zergatia	Zenbatekoa
6574/33	Donibane Lohizuneko Turismo Bulegoa	Euskal Herriko Kantu Abesbatza	3.000 €
6574/33	Taulatxoen Antzerkia	Antzerki jarduera lehen mailako 5. urtekoentzat	457 €
6574/33	Iraileko Musika Lapurdiko Kostaldea	«Bidaiarako gomita» Festibalaren antolakuntza	300 €

Gain honetan emanak diren diru-zamak ordaintzeko, Auzapez Jaunak aurrekontu orokorrean honako erabaki moldatzaile honen onartzea proposatu du.

Funtzionamendu saila: (1. EM)

<i>Funtzionamendu saila: Gastuak</i>			
<i>Artikulua</i>	<i>Funtzioa</i>	<i>Izendapena</i>	<i>Zenbatekoa</i>
6574	33	Funtz.Diru-lag.Zuz.prib.Elk.Aut.	3 757
658	O1	Eguneroko kudeaketarako orotariko karguak	-3 757

Azalpen honen jarraian, 2011ko uztailaren 11ko Finantza Batzordearen iritzia hartu ondotik, eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Gain honetan azaldu bezala diru-laguntzen isurtzea **ERABAKI DU**.
- Gain honetan azaldu bezala erabaki moldatzailea **ONARTU DU**.

AHO BATEZ ONETSIA

6) Herri Harresituak Mendebaldeko Pirinioetan Elkarte

Txostengilea: Guy LALANNE Jn.

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei jakinarazi die «Herri Harresituak Mendebaldeko Pirinioetan Elkarte» aho batez erabaki duela 2011ko aurrekontua onartzea eta horrek agerian uzten dituen finantzatze gehigarri beharrei aurre egiteko bazkideei dei egitea.

Kolektibitateen gain den finantzatze gehigarriaren beharra 4.121,61 eurokoa da, Zibururi eskatua zaion parte-hartzea 944,50 eurokoa delarik.

Auzapez Jaunak eskatu 944,50 euroko parte-hartze hori ordaintzea proposatu du, behar diren kredituak 2011ko hastapeneko aurrekontuan sartuak direnez, 6 281 artikuluan.

Azalpen honen jarraian, 2011ko uztailaren 11ko Finantza Batzordearen iritzia hartu ondotik, eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Herri Harresituak Mendebaldeko Pirinioetan Elkarteari 944,50 euroko diru-laguntza isurtzea **ERABAKI DU**.
- Behar diren kredituak 2011ko hastapeneko aurrekontuan 6 281 artikuluan sartuak direla **ZEHAZTU DU**.

AHO BATEZ ONETSIA

CAPDEVIELLE Anderearen sartzea

7) Gazteria Zerbitzua: Diru-laguntza baten ematea

Txostengilea: Claude LOLOM Jn.

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei jakinarazten die bolondresez osatutako «XORIAK» eskifaia, Euskal Herriko ganbara ekonomiko gaztearekin elkarkidetzan «Haurren ametsak»

ekimenean parte hartzea erabaki duela. Ekimen hau, biziaz edo eritasunaz behartsu diren haurrei aireko bataioak eskaintzean datza.

Estatu mailan «Zeruko Zaldunek» antolaturik, ekimen horrek berekin dakar 27 hegazkin inguruko karabana bat + Armadako Casa delako bat.

Auzapez Jaunak azaldu du Zibururi diru-laguntza bat eskatu izan zaiola.

Auzapez Jaunak 500 euroko diru-laguntza bat «XORIAK» eskifaiari ematea proposatu du gain honetan azaldua den ekimena onera eramateko.

Gain honetan emanak diren diru-zamak ordaintzeko, Auzapez Jaunak Gazteria aurrekontuan honako erabaki moldatzaile honen onartzea proposatu du.

Funtzionamendu saila: (1. EM)

Funtzionamendu saila: Gastuak			
Artikulua	Funtzioa	Izendapena	Zenbatekoa
6288	422	Kanpoko beste zerbitzuak	- 500
6574	422	Funtz.Diru-lag.Zuz.prib.Elk.Aut.	500

Azalpen honen jarraian, 2011ko uztailaren 11ko Finantza Batzordearen iritzia hartu ondotik, eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- «XORIAK» eskifaiari 500 euroko diru-laguntza bat ematea **ERABAKI DU**.
- Gain honetan azaldu bezala erabaki moldatzailea **ONARTU DU**.

Oharrak:

TAPIA And.: «*Ekimen interesgarria da. Aireko bataio horiek ziburuko haurrei eskainia izanen ote zaizkie?*

Zein irizpideren arabera finkatua izan da 500 euroko diru zama?

INTEGRAZIO BATZORDEA elkarteak, zenbait urtez geroztik ahalmen urriko haurrak eskola arruntan integratzearen alde lanean ari da.

Herritik diru-laguntza bat ote du eta zenbatekoa? Ez dut arrastorik ikusi. Agian, Herriko Jendarte Laguntza Zentroaren (HJLZ-CCAS) bitartez emana da?

Pentsatzen dut beharrezkoa dela laguntza horien emateko irizpideei buruz eztabaidatzea zuzentasun eta gardentasun gehiago izan dadin ziburutarrentzat. »

AHO BATEZ ONETSIA

LALANNE Jaunaren ateratzea

8) Argindarraren gaineko zergaren tasa 2012tik aitzina

Txostengilea: Claude LOLOM Jn.

Argindarraren gaineko zerga 1970ean finkatua izan da herrien kodearen aplikatzearekin.

Gobernuak, argindar kontsumo zergen erreforma sarrarazi du argindar merkatuaren antolakuntza berriari buruzko legean (AMAB-NOME legea).

Izan ere, Frantziak tokiko zergentzat aplikagarria den kudeaketa-moldea argindarrari egokitu behar du, produktu energetikoen gaineko zergak berregituratzen duen 2003ko urriaren 27ko europar zuzentarauaren neurrien arabera izateko.

Europar zuzentarauak argindar kontsumoak, kontsumitutakoaren gainean zergapetuak izan daitezzen behartzen du. Argindarraren zergapetzea ez litzateke orduan tasa baten arabera oinarritua, baizik eta MWh-ko prezio baten arabera.

Behe honetako taulak 2011ko urtarrilaren 1etik aplikatzen diren prezio minimo eta maximoak aurkezten ditu:

KONTSUMO MOTAK	OINARRIKO PREZIOA €/MWh	TOKIKO ZERGEN BIDERKATZAILEA	PREZIO MINIMOAK €/MWh	PREZIO MAXIMOAK €/MWh
Bizitegi-kontsumoak	0,75	Herria: 0-8	0	6
		Departamentua 2-4	1,5	3
Kontsumo Profesionalak Indarra ≤ 36 kVA	0,75	Herria: 0-8	0	6
		Departamentua 2-4	1,5	3
Kontsumo Profesionalak Indarra > 36 kVA eta ≤ 250 KVA	0,25	Herria: 0-8	0	2
		Departamentua 2-4	0,5	1

AMAB-NOME legeak, 2011. urterako aterabide iragankor bat aurreikusten du. Biderkatzailea, 2010eko abenduaren 31n kolektibitateetan indarrean zen tasa hamartarrean, 100ez biderkatutakoa izanen da. Gisa honetan, 2010ean argindar horniduraren gainean % 8ko zerga tasa aplikatzen zuen herriak, erreferentziako prezioei 8ko biderkatzailea aplikatua izanen zaie 2011n, hau da zerga baremoa: hurrenez hurren 6 euro eta 2 euro MWh bakoitz, erabiltzaile moten arabera.

2012tik aitzina, biderkatzailearen gaineko muga, tabakoz kanpoko kontsumo prezioen batuz bestekoaren indizearen arabera eguneratua da, aitzineko urterako eratur, 2009. urterako eratur izan den indize beraren arabera.

2012. urterako, Herriko Kontseiluak 2011ko urriaren 1a aitzin iritzia azaldu behar du biderkatzaile aplikagarria finkatzerako.

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei proposatu die 2012tik aitzina azken argindar kontsumoaren gaineko herriko zergaren erreferentziako prezioari biderkatzaile aplikagarria finkatzea, biderkatzaile eguneratuaren gain-mugan. Honek diru sarreren mantentzera hurbiltzea ahalbidetuko luke.

2011ko uztailaren 11ko Finantza Batzordearen iritzia hartu ondotik, eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- 2012tik aitzina azken argindar kontsumoaren gaineko herriko zergaren erreferentziako prezioari biderkatzaile aplikagarria finkatzea **ERABAKI DU**, biderkatzaile

eguneratuaren gain-mugan. Honek diru sarreraren mantentzera hurbiltzea ahalbidetuko luke.

Oharrak:

GOURAUD Jauna:

«Konkretuki Ziburun

Orain arte, hiriak harpidetzaren gainean % 8ez zergapetzen zituen ziburutarrak eta kontsumoaren gainean % 80ez.

*Hemendik aitzina hiriak ziburutarrak zergapetuko ditu kontsumo osoaren gainean bakarrik. Bere diru-sarrerak mantentzeko, hiriak baimendua den gain-mugaren **maximoan** zergapetu behar ditu bere bizilagunak.*

Anartean, MWh-aren Unitateko prezioa 0,0045etik 0,0075 eurora emendatu da, hots, % 60ez gehiago.

Ondorioz

«Betiko istoriora itzultzen gara, ordaintzailea berriz ere kontsumitzailea da. Nicolas Sarkozyren estatu mailako politikaren ordezkaria baizik ez zara.

Esker dezagun Nicolas Sarkozy, liberalismo gehikeriaren lehendakaria, interes orokorraren zerbitzuko energiaren sektore publiko bat desegiteagatik, energia oso zorrozki kudeatzen duten pertsona behartsuenei pentsatu gabe.

Esker dezagun Nicolas Sarkozy, zeinek EDF enpresa pribatizatuz 2007an (alderantzizkoa hitzeman ondotik) prezioen emendaketa trinko bat eragin duen, baita zerbitzuen ahultzea, azpi-inbertsioak eta enpleguen murrizketak ere.

AMAB-NOME legea, 2010ean onartua, 2011ko uztailaren 1ean indarrean sartu da.

Erabiltzaileentzat lehen ondorioa, haien faktura tasen emendatzea izanen da: % 5 uztailaren 1ean, % 25 erdiesteko 2015ean.

Herritarrek ondoz ondoko emendatzeetaz ase dira. GDF, ezantza, ura, etabar...

Gain-mugako emendatze honen kontra gara erabat. »

DUGUET Anderea:

Interesgarri izan daiteke jakitea egin duzuenek hiriko bilan energitekoa? bai bada, zertan gara argindar kontsumoaren aldetik?

Auzapez Jaunaren hitzen jarraipenean Frantzia den prezio apalari buruz:

Dominique Duguet: Auzapez Jauna, ba ote dakizu zergatik gure prezioa hain merke den? energia nuklearrarengatik edo esker da. Nicolas Sarkozyk nahi izan duen pribatizazioak konkurantziari idekitzea ahalbidetu du, gisa honetan AMAB-NOME legea sortaraziz, honek EDF behartzen du hemendik aitzina bere zentral nuklearren ekoizpenaren laurdenaraino bere lehiakideei saltzea. Lehiakide hauek argindarra beste erresumei uzten diete zentral nuklearrek eragiten duten kutsadura gabe.

Pentsatzen dugu, zergen goititzea, egin behar balitz, gure indarrak zuzendu beharko lituzkela nuklearretik ezti ateratzeko eta alternatiba iraunkorragoetara zuzentzeko, multinazionalak gizendu baino. »

DUGUET And., BAZERQUE And., TAPIA And., MINTEGUI Jn., GOURAUD Jn. eta MADRID Jaunak kontra bozkatu dute.

ONARTUA

Haurtzaroa Gazteria Hitzarmena Auzapezaren ahalduntzea

Txostengilea: Claude LOLOM Jn.

Auzapez Jaunak zehaztu du Familia Laguntza Itsas Kutxarekin eta Pirinio Atlantikoetako Familia Laguntza Kutxarekin gure hitzarmena berriztatu behar dela haurrei eta 17 urte beteak dituzten gazteei zuzendu harreraren baitan.

Auzapez Jaunak zehaztu du 2007an sinatu Haurtzaro eta Gazteria Hitzarmena lau urterako bururatu dela 2010eko abenduaren 31n.

2011ko uztailaren 11ko Finantza Batzordearen iritzia hartu ondotik, eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Auzapez Jauna heldu den Haurtzaro eta Gazteria Hitzarmena sinatzea **AHALDUNDU DU** 2011ko urtarrilaren 1etik aitzina indarrean izanen dena.

AHO BATEZ ONETSIA

9) Office 64 de l'Habitat: Lankidetzaren Hitzarmena

Txostengilea: Claude LOLOM Jn.

Auzapez Jaunak oroitarazi du 2010eko abenduaren 15eko Herriko Kontseiluak Office 64 de l'Habitat-rekin elkarkidetzaren hitzarmena onartu duela alokatzeko 12 etxebizitza sozialak eraikitzeko Zokoa-Untxin auzoan eta Auzapezari hau sinatzeko baimena eman dio.

Ziburuko herriko finantza parte-hartzea eragiketaren salmenta-prezioaren %3tan finkatua da. Hitzarmenak parte-hartze hori 50.177,93 eurotan estimatzen du, nahiz eta 2010eko abenduaren 15eko deliberoak 48 969,12 eurokoa aipatzen duen.

Auzapez Jaunak proposatu du herriko parte-hartzearen zenbatekoa kontuan hartzea, hau 50.177,93 eurokoa litzatekeena hitzarmenaren arabera.

2011ko uztailaren 11ko Finantza Batzordearen iritzia hartu ondotik, eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- **KONTUAN HARTU DU** herriko parte-hartzearen zenbatekoa, hau 50.177,93 eurokoa litzatekeena hitzarmenaren xedapenen arabera.

AHO BATEZ ONETSIA

10) Arte eta Historiako Hiri Labela: Hautagaitza eraketaren hasiera

Txostengilea: Claude LOLOM Jn.

Ziburuko herriaren ondare eta arkitekturak kalitatezkoak dira eta herriko etxea kalitate hori mantentzera eta baloratzera bermatu da hainbat ekimenen bitartez: obrak, ZPPAUP baten plantan ezartzea 2001ean, erakusketa desberdinak, etab...

Lan garrantzitsu hau baloratua eta indartua izan daiteke Kultura Ministerioak ematen duen «arte eta historiako hiri» labela eskuratzuz. Label honek lurraldeak kalifikatzen ditu arkitektura kalitatearen eta bizi ingurunearen jakintza, herri garapen, kontserbazio, arartekotasun eta laguntza desmarta ern batean sartzen direlarik.

Zibururentzat, label honen eskuratzeko ziburutarrengandik ondarearen ezagutza hobetzea ahalbidetuko lezake. Herriaren kultura distira eta bere erakargarritasuna indartzen ahalko luke udako sasoin betetik kanpo garatzen den kalitatezko turismo baten agerpenarekin.

Label hori eskuratzeko, herriak lurraldeko kultur egitasmoa aurkezten duen hautagaitza dozier bat aurkeztu behar du. Dozierra 2012ko udazkenean aurkeztua izan liteke.

Koherenteago izateko, labelarako hautagaitza Donibane Lohizune eta Ziburuko bi herrien artekoa izan liteke.

Bestalde, herria Arte eta Historiako Hiri eta eremu zaindu eta babestuak dituzten hirien estatu mailako elkarteari lot lekiok, honek, hautagaitzaren eraketari sostengua ekarriko baitio. Elkarte horren urte saria biztanleka 0,04 eurotara heltzen da, hots, herriarentzat 276,56 euroko parte-hartzea.

2011ko uztailaren 11ko Finantza Batzordearen iritzia hartu ondotik, eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- «Arte eta Historiako hiri eta lurralde» labelarentzat, Donibane Lohizuneko eta Ziburuko bi herrien arteko hautagaitza baten eraketaren printzipioa **ONARTU DU**.
- Arte eta Historiako hiri eta lurraldeak eta eremu zaindu eta babestuak dituzten hirien estatu mailako elkarteko kide egitea **ERABAKI DU**.

Oharrak:

DUGUET Anderea:

«Sar-hitza gisa,

Udal gehiengo batek «Ensemble pour Ciboure/Ziburu Aintzinen» programan proiektu bat errekupeztzera etortzen delarik, honako era honetan uler dezakegu.

- *Udal gehiengoak ez du dinamismorik eta bere ohituretan gogorturik dago*
- *Duela 3 urte jadanik, udal oposizioak bere hiriaren ikusmolde bat bazuen, ziburutarren halabeharrei interesa ematen zien eta onena desiratzen zien.*
- *Udal oposizioak interes orokor eta kolektiboaren kezka du.*

Gurea den proiektu hortatik ez gaituzue baztertzen ahal. Dozier hori arretaz eta batez ere parte-hartze aktiboz segitzeko gogo handia dugu.

Bistan da, hainbat ohar eta iruzkin

- 1) **Kultura Ministerioak ematen du label hori**, Ziburun egiten den lanaren eskasia deitoratzea baizik ezin dugu egin. Dozierra Finantza batzordetik pasatzen dugu nahiz eta lehen deliberoa hautagaitzaren eraketaren proiektua onartzea den... Nortaz trufatzen zara?
- 2) **Perimetroaren egokitasunari dagokionez**. Lurralde garrantzitsuago bati zabaldua ez izatea deitoragarria da, bi herrien arteko labela bati zuzentzea baino lurralde osoko labelari zuzendu behar ginateke. Akitaniako Eskualdea gaurko egunean defizitarioa da eta proiektu ainitz eratzen ari dira. Label hori eskuratzeko ez baita errex, aukera guziak gure alde ematea hobe litzateke.
- 3) **Zure hiri-politikaren bilanari dagokionez**: Duela 10 urte hasi den Hirigintza Tokiko Plana (HTP-PLU) ez da oraindik oposagarria. Desmartxa hori ez da ere ez aipatua izan eta zure hiri-sartzeak, Zubibururekin, dozierra jadanik ezbaian ematen du. Horregatik perimetro zabalago bat finkatu beharko litzateke: honi zer deritzo Herri Elkargoak?
- 4) **Proiektua**: deus ez konkreturik eta hau deitoragarria da: nori zuzendua zaio proiektua? zergaitik label hori eskatzen dugu? zer igurikatzen dugu? kalitatezko turismo baten agerpenatik kanpo...
- 5) **Zure tokiko politika publikoa**: honako arlo hauei buruz galdeketa ainitz: kultura ekimena, hezkuntza ekimena, bizitegia, hirigintza eta zerbitzu teknikoak, garapen iraunkorra eta ekonomia ere. Nola ondareari eta bizi ingurunearen eraketari lotuak diren tokiko eragileak parte harrarazi nahi dituzu? Nor ote dira?
- 6) **Metodologia**: ematen du dozier honen aurkezteko urte bateko epea askoz laburregi dela salbu jadanik eratua baldin bada. Kargudunari dagokionez: jadanik kontratatua dela iduri du emazte bat aipatzen baita; zer dira bere gaitasunak, bere kontratatzea nola egin ote da? Harrigarria da ere 2 kultura batzordeak ez bateratzea komite teknikoa baino lehenago. Baina deus ez berririk alde horretatik, ez da ainitz solastatzen, ez da elkarriketarik. Dena ilunean erabakia da.
- 7) **CIAP bat** sortua izanen ote da?
- 8) Zer **baliabide** emana izanen da proiektu horretan formazio lanbide heziketa eta kultura mailan; zer aurrekontu atxiki duzue hautagaitza horrentzat?
- 9) Bestalde ohartzen gira, nahiz eta 2011ko erroldaren emaitzen berri eman nahi ez duzuen, Ziburuko populazioa 6.914 biztanletara pasa dela (ikus urtesariaren zenbatekoa). »

AHO BATEZ ONETSIA

III/ Herriko Langilegoa

Txostengilea: Claude LOLOM Jn.

1) Lanpostu aldaketa barneko izendatzeen ondotik

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei jakinarazi die langile batzuei barneko izendatzearen izenean maila goragoko lanpostu batera heltzeko baldintza bereziak baliatzen ahal dituztela, zahartasun baldintzak eta lan bizipen zerbait justifikatzekotan.

Pirinio Atlantikoetako Lurralde Funtzio Publikoaren Departamenduko Kudeaketa Zentroan eskudunak diren Pareko Batzorde Administratiboek, proposatu hautagai bakoitzaren lan-balioa eta hartzekoak diren lanpostu kopurua kontuan harturik, langile batzuk 2011ko barneko izendatzeari doazkion ahalmen zerrendetan inskribatu dituzte.

Auzapez Jaunak proposatu du ondorioz honako enplegu hauek aldatzea hunkituak diren langileen izendatzeari ekiteko:

- 1. klaseko laguntzaile teknikari nagusia (C kategoriakoa) gainbegirale (C kategoriakoa) bihurtuko da
- 1. klaseko laguntzaile administratibo nagusia (C kategoriakoa) lurralde erredaktore (B kategoriakoa) bihurtuko da
- Gainbegirale nagusia (C kategoriakoa) teknikaria (B kategoriakoa) bihurtuko da
- 1. klaseko teknikari nagusia (B kategoriakoa) ingeniari (A kategoriakoa) bihurtuko da.

2011ko ekainaren 28ko Pareko Batzorde Teknikoaren iritzia hartu ondotik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Enpleguen aldaketa gain honetan azaldu bezala egitea **ERABAKI DU**.

AHO BATEZ ONETSIA

2) Lanpostu aldaketa konkurtso baten erdiespenaren ondotik

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei jakinarazi die 1. klaseko laguntzaile teknikari tituludun batek lurralde gainbegiraleen barneko konkurtsoaren 2011ko saioa gaitu duela, honako sail honetan: eraikuntza, obra publikoak, bideak, sare desberdinak.

Zerbitzuen berrantolaketa egiten ari dela eta langile honen lanpostua aldatuko dela-eta, Auzapez Jaunak 1. klaseko languntzaile teknikaria, gainbegirale bilakatzea proposatu du.

2011ko ekainaren 28ko Pareko Batzorde Teknikoaren iritzia hartu ondotik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Enpleguaren aldaketa gain honetan azaldu bezala egitea **ERABAKI DU**.

AHO BATEZ ONETSIA

3) Lanpostu aldaketa erretra hartze baten ondotik

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei jakinarazi die 1. klaseko teknikari laguntzaile nagusi tituludun batek erretretara joateko bere eskubideak baliarazten dituela 2011ko uztailaren 1ean.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendaritzan izendatua den langile horrek, herriko eraikinen ardura zuen.

Hautagaitzarako deia luzatua izan da. Giza Baliabideen Zerbitzuak 25 hautagaitza zenbatu ditu. Hiru hautagai errezibituak izan dira enplegatze solasaldiarentzat. Gainbegirale bat atxikia izan da lanpostu aldaketa bidez. Zerbitzu teknikoaren berrantolaketa langile hori zerbitzu teknikoaren zuzendaritza operazionalaren arduradunaren aginte zuzenaren pean ezarria izanen da eta herriko eraikinen ardura bere gain ukanen du.

Auzapez Jaunak ondorioz, proposatu du denbora osoz den 1. klaseko teknikari nagusia, denbora osoz izanen den gainbegirale bihurtzea 2011ko uztailaren 1etik aitzina.

2011ko ekainaren 28ko Pareko Batzorde Teknikoaren iritzia hartu ondotik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Enpleguaren aldaketa gain honetan azaldu bezala egitea **ERABAKI DU**.

AHO BATEZ ONETSIA

4) Ziburuko eta Urruñako Polizien arteko Mutualizazio Hitzarmenaren berriztapena

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei jakinarazi die Ziburuko eta Urruñako Herriko Polizia zerbitzuen baliabideak bateratzea 2010eko udaldian plantan ezarri zela.

Bateratze honek, Ziburu eta Urruñako herrietan handituz doan segurtasun, osasun-egoera eta lasaitasun publikoaren beharrei erantzutea ahalbidetu du.

Hori dela eta, egokia dirudi zerbitzu hori segitzea aldaketa bat ekarriz, hots, udako sasoinan (abuztuaren 31tik uztailaren 1era), langileek lanean hartuko dira bi astetik behin edo Ziburun, edo Urruñan.

Auzapez Jaunak Ziburu eta Urruñako herriko polizien arteko mutualizazio hitzarmena berriztatzea proposatu du urte baterako, berriztagarria izanen dena adierazgabeko berritze baten bidez.

2011ko ekainaren 28ko Pareko Batzorde Teknikoaren iritzia hartu ondotik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Ziburu eta Urruñako herriko polizien arteko mutualizazio hitzarmena berriztatzea **ERABAKI DU** urte baterako, berriztagarria izanen dena adierazgabeko berritze baten bidez.

AHO BATEZ ONETSIA

5) Aprestiz baten errebitzea

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei jakinarazi die aprestizak errebitzea gure kolektibitatean ohitura dela.

Aprestizgo hitzarmena aldizkatutako hezkuntza molde bat da. Eskola beharra bete duten langile gazteei formakuntza orokor bat eskaintzea du helburu. Hau, teorikoa eta praktikoa da eta bigarren mailako edo goi-mailako lanbide edo teknologia irakaskuntzako diploma erdiestea helburu du. Hitzarmen bat sinatua da aprestiza eta enplegatzailearen artean.

Urte guziz, gure kolektibitateak hainbat eskaera errebitzen ditu. Berdeguneen Zerbitzuan enplegatua den aprestiz baten abiatzeak enplegatzerako posibilitate bat idekitzen du. Eskaera batek gure arreta atxiki du «CAP Baratze Obrak» diploma prestaketaren baitan. Aprestiz hau 2011ko irailaren 1etik aitzina hartua izan liteke bi urterako.

2011ko ekainaren 28ko Pareko Batzorde Teknikoaren iritzia hartu ondotik eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Herriko lantegietan aprestiz berri bat hartzea **ERABAKI DU** bi urterako.

AHO BATEZ ONETSIA

IV Zerbitzu Teknikoak

1) San-Bizente eliza: Orga barroko baten eraikuntza

Txostengilea: Claude LOLOM Jn.

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei oroitarazi die "Ziburuko orgaren adiskideak" elkarteak, 2008ko otsailean sortua, barroko estiloko orga berri baten eraikuntza proiektua eratu duela Ziburuko Herriarekin adostasunean, 2009ko martxoaren 31ko Herriko Kontseiluko deliberoan zehaztua den bezala.

Orga berriaren sortzeko merkatua, prozedura mugatuan bideratua izan da Merkatu Publikoen Kodeko 60 eta 64 artikulua jarraituz.

Prozeduraren lehen fasea honako moldean iragan da:

- Multzo bakar batek osatzen ditu merkatu honen eginkizunak eta diziplina ugariko talde bati zuzendua da: orgagilea, ondare arloko arkitekto bat eta egitura ikerkuntza bulego bat.
- Kontsulta 2010eko azaroaren 2an hasi da.
- Kontsulta Herriko Etxeko webgunean ezarria izan da, les Petites Affiches aldizkarian, BOAMPan 2010eko azaroaren 2an eta Achat Public-en 2010eko urriaren 15ean.
- Eskaintzak emateko, epe muga **2011ko urtarrilaren 10ean, 12:00etan** finkatua zen.
- 2011ko urtarrilaren 20ko egunean finkatu gutun-azalen idekitze saioan, Deialdi Publikoen Batzordea honakoaz ohartu da:
 - 4 gutun-azalepeetan ailegatu dira
 - gutun-azalak idekitzerakoan, enpresa guzietan agiri administratiboak eman dituzte kontsulta araubidearen arabera eta aztertuak izan ahal dira.
- Deialdi Publikoen Batzordean aurkeztua izan den azterketa zehaztua kontuan harturik, Batzordeak honako sailkapen hau atxiki du:

- 1 / **MANUFACTURE ORGUE THOMAS**
- 2 / **HERMANOS DESMOTTES SL**
- **MG PESCE FRERES** eta **MANUFACTURE ORGUE AUBERTIN** **kontsultaren araubideari ez egokia**

Gisa honetan, Merkatu Publikoen Kodearen 60 artikulua arabera, Batzordeak 2. urratsean parte hartzeko bi hautagai baizik ez ditu hautatu:

- **MANUFACTURE ORGUE THOMAS**
- **HERMANOS DESMOTTES SL**

Bi hautagaiek 2011ko urtarrilaren 28rako, 12:00etan, beren behin betiko dozierra eman dute 2. urratsaren araubidearen arabera.

Bi hautagai horiek beren aurkezpen teknikoa egin dute 2011ko ekainaren 30ean batzorde teknikoaren aitzinean eta Deialdi Publikoen Batzordean 2011ko uztailaren 8an 14:00etan iragan dena.

Hautaketa irizpideak, proiektua merkatuan azaldu baldintzetan gauzatzeko gaitasunari lotuak ziren.

Enpresa (edo enpresa multzoa) honako agiri hauek eman behar zituen:

- Obra mota hauek gauzatzeko Enpresaren Kalifikazioak eta Gaitasunak (Enpresaren eta Langileen kalifikazioa, Enpresaren Langile Kopurua...),
- Xantier berdintsuen erreferentziak, honako erakuspen hauekin: gauzatu obren zenbatekoa, obralaria, obragina, xantierraren gauzatzeko denbora, gauzatzearen data,
- Obra gauzatze modua eta epeen atxikitzea, aste guziz solaskide bat xantierraren bilkuretan, xantierraren antolaketa, etab.
- Erabiliak diren eraikuntza-materialen fitxa teknikoak (erabiliak diren zura, gisu, metal motak, etab.),
- Erabilia den materialaren fitxa teknikoak (aldamio motak, etab.),

Merkatua, eskaintza hobereana aurkezten duen hautagaiari emana zaionez, honako irizpide hauen arabera preziatua:

1. eskaintzaren balore artistikoa: instrumentuaren kalitate artistikoak ikusmenaren aldetik (kanpoko eta barneko parteak), soinu aukeren aberastasuna, grabaketa aukeren aniztasuna, hunkimenaren zehaztasuna: **30%**
2. eskaintzaren balore teknikoa, besteak beste erabiliak diren eraikuntza-materialen arabera, sorkuntza asmamenaren arabera, teknika erdi-industrialen ordeztu ahala eskulanen tekniken atxikitzearen arabera, lantegiari doazkion fabrikatze prozedurak eta gaitasunak hautatzearen arabera: **25%**
3. ezarpenaren kalitatea eraikinean, integrazioaren emaitza estetikoaren arabera, espazioaren erabilpen hobezinaren arabera eta egin beharko zaion mantentzearentzat edo bisita gidatuentzat instrumentuaren parte desberdinetara joan daitekeen errextasunaren arabera: **18 %**

4. proiektuaren ezohikotasuna eta berritzailetasuna, teknika mailan, musikan bezainbat, berezko nortasun azkar batez hornitzeko xedez: **15 %**
5. eskaintzaren zenbatekoa: **6 %**
6. burutzearen proposatu epea eta epe hori atxikitze estimatu gaitasuna: **4 %**
7. mantentze hitzarmenaren zenbatekoa eta edukia: **2 %**

Irizpide bakoitxak 0 eta 20ren arteko nota bat ematea ahalbidetu du, horri gain honetan doakion ehuneko aplikatzen zaio, horren emaitza egin eta 20en gaineko nota orokor bat lortzen da. Lortu diren notak batzorde teknikoko kideen eta Deialdi Publikoen Batzordeko boz deliberatzaileetako kideen noten emaitzak dira eta hauek honako emaitza orokor hau emaitzen dute:

Hermanos DESMOTTES: 15.83 / 20

SPRL THOMAS: 17.17 / 20

Hona beraz Deialdi Publikoen Batzordeak hautatu duen hautagaia:

- SPRL Manufacture d'orgues THOMAS
STER FRANCORCHAMPS (Belgika) eta bere enpresa-multzoa:
- ARCADIS BELGIUM, LIEGEn kokatua (Belgika)
 - W Architectures, Tarbesen kokatua

BEZik gabeko 493.407,37 € eskaintza oinarri batentzat

1. aukeraren **osagarria**: Solairuko xehetasuna **BEZik gabeko 6000 eurotan**.

Mantentze Merkaturia eskaintza oinarriari lotua da engaiamendu agiriari erantsia den prezio orriaren xehetasunaren 11. kapituluaren zehaztua den merkatuaren baitan, 4 urtez BEZik gabeko 1.120 eurotan eta azken urtea BEZik gabeko 1.300 eurotan.

Zenbateko guzi horiek (Eskaintza Oinarria eta aukera) hona nola herria engaiatzen duten: **BEZik gabeko 499.407,37 €** inbertsioetan eta BEZik gabeko 5.780 € funtzionamenduan.

Finantza banaketak 2009ko martxoaren 31n atxiki finantzamendu planei dagozkie honako zehazpen hau kontuan harturik: Ziburuko Herriko Etxeak gehienez 100.000 euroko saldo bat baizik ez du bere gain hartuko, Orgaren Adiskideak elkartarekin sinatu den hitzarmenak dion bezala.

Azalpen horren jarraipenean, 2011ko uztailaren 8ko Deialdi Publikoen Batzordearen iritzia hartu ondotik eta deliberatu ondotik, Herriko Etxeak:

- Deialdi Publikoen Batzordearen emate iritzia **ONESTU eta JARRAITU DU** Orga Barroko baten burutzea THOMAS ARCADIS eta W ARCHITECTURES enpresa-multzoen gain uzteko BEZik gabeko **499.407,37 eurorentzat**.
- Estatuko, Akitaniako Eskualde Kontseiluko, Pirinio-Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko eta ministeritzako, legebiltzarreko eta arlo pribatuko funtsetako diru-laguntzak **ESKATZEN DITU** eragiketa horren burutzeko merkatu honen zenbateko berri hauek kontuan hartuz.

- Erabaki berriak jarraituz Auzapez Jaunari agiri administratibo eta finantzario guziak sinatzeko **BAIMANE EMAN DIO**.
- Auzapez Jaunari agiri administratibo eta tekniko guziak sinatzeko **BAIMENA EMAN DIO** orgaren sorrerari ekiteko proiektu honen arabera.

Oharrak:

DUGUET Anderea:

«Hainbat hilabetez geroztik harreman normalizatuagoak eta lasaiagoak ditugu. Batzorde teknikoan parte ez hartzeak nahigabeturik uzten gaitu.

Espanian diren Tailerra eta Desmottes lantegiko obrak bisitatzera gomitatu nauzu.

Ordea, Ziburuko bi enpresen bisiten kari beren proiektua babesteko, oposizioa ez duzu gomitatu. Alta, mahain honen inguruan adostasuna lortu duen dozierra da, denak ados gara eta zure jarrera zuhur eta sektariorat jotzen dugu. Deitoratzen dugu. »

AHO BATEZ ONETSIA

2) ZIBURU, HENDAIA, DONIBANE LOHIZUNE eta URRUÑAko herrien arteko manaketa-elkarte baten eraketa

Txostengilea: Auzapez Jauna

Lurralde Elkargoetako Kode Orokorra ikusita;

Merkatu Publikoen Kodea ikusita, besteak beste bere 8. artikulua);

ZIBURU, HENDAIA, DONIBANE LOHIZUNE eta URRUÑAko herriek ureztatzaileen (sute iturbegi eta zutoinak) urteko egiaztatze prestazioak burutzeko xede dutela kontuan harturik;

Prestazio horiek manaketa-elkartze bat izan daitezkeela kontuan harturik;

Manaketa mutualisazio honi doazkion eskala-ekonomiei lotua den interesa kontuan harturik;

Herriko Kontseiluari txostena:

Merkatu Publikoen Kodeko 8. artikulua obraginei aukera eskaintzen die beren beharrak beste eskumen esleitzailerekin bateratzeko.

Desmarta honek eskala-ekonomiak ateratzea ahalbidetzen du, besteak beste deialdi publiko desberdinen eragin gehigarriarengatik.

ZIBURU, HENDAIA, DONIBANE LOHIZUNE eta URRUÑAko herriek ureztatzaileen urteroko kontrol prestazioak burutzeko proiektu amankomuna dute.

Zerbitzu prestazio horiek elgarrekin segurtatzea bideragarria da manaketa-elkartze bat eratuz, elgarren arteko zerbitzu prestazio merkatu baten pasatzeko.

Beharren erantzuteko diruztatzea elkarteko kide bakotxaren gain utzia da bere kuotaren araberako heinean.

Merkatu Publikoen Kodearen xedapenen arabera, elkartzeko gisa eratzeko hitzarmen bat sinatu behar da horren funtzionamendu moduak zehazteko.

Elkarte horren gestiorako, komeni da ere koordinatzaile baten izendatzea besteak beste hautagaitza dei prozedura kudeatzeko ardura ukanen duena.

Merkatuko arduradun bakotzak bere kolektibitateari dagokion merkaturia sinatu beharko du.

Horretarako Deialdi Publikoen Batzorde berezi bat osatua izanen da:

- Kideen artean hautatua izanen den ordezkari bat
- Koordinatzailearen ordezkariak du Deialdi Publikoen Batzordea zuzendatuko.
- Behar orduan, herri bakotxetako teknikariek esku hartuko dezakete pertsona kalifikatu gisa aholku podere batekin.

Azalpen honen jarraian eta deliberatu ondotik, Herriko Kontseiluak:

- Helarazia izan zaion hitzarmen proiektua **ONESTU DU**.
- Auzapezari dokumentu hau sinatzeko **BAIMENA EMAN DIO**.
- Henri ANIDO eta Gabriel GOURAUD Deialdi Publikoen Batzordeko kideak, hurrenez hurren, tituludun bezala eta ordezkari bezala, **IZENDATU DITU** elkarketa honentzat justuki plantan ezarri den Deialdi Publikoen Batzordearen baitan aulkia betetzeko.
- ZIBURUko herriak manaketa-elkartzearen koordinakuntza arloko eginkizunak bermatuko dituela **KONTUAN HARTU DU**.

AHO BATEZ ONETSIA

Galderak eta oharrak

«

1) Zubiburuko hotelen geroa

Prentsaren bidez jakin dugu 2003an eremu hortan ezarri nahi izan dituzun bi hoteletan ibiltze apala dela. Oroitarazi ote behar dizugu Donibane Lohizune lurraldeko ostalarien batasunaren gaitzidura 2005ean. Oroitzen ote zara ere turismoko profesionalek deitoratzen zituztela zure elkar aditze eskasia eta gure herriari buruzko zure gogoeta falta epe laburreko arrazoinamenduen mesederako?

Oroitzen ote zara Buffières Jauna, lehendakariak iragarri zuela 2005eko ekainaren 30ean jadanik hotel horiek etxeak bilakatuko zirela? Zuzen ikusia luke!

Lurra saldu duzularik 2 hotel horien eraikitze bertsaltzeko baldintzak aurreikusi ote zenituen? Oroitarazten dizut lurra prezio urrian utzi zenituela: 2.100 metro karratuko SHONa BEZik gabeko 152 eurotan eta 1.000 metro karratuko BEZik gabeko 250 eurotan.

Birsaltzean eta eraikin horien edozein esleitzerentzat eskatzen dizugu % 40 etxebizitza sozialen ezartzea, Ste Thérèsen egin den bezala. Ez da pentsatu ere ziburutarrek berriz ordaintzea zure buruargitasun eskasagatik.

Auzapez Jaunak ohartarazi du hotelen Zuzendariak ez duela inoiz ofizialki deitu eta oraingoz, zurrumurruak baizik ez direla.

2) *Herri batzordeen funtzionamendua*

Demokrazia ez da bat-batean asmatzen, araudiak baditu.

Alta, denek dakite ez dituzula araudiak maite, bereziki trabatzen zaituztelarik. Ez duzu dudatu mahain honen inguruan berean legeak eta araudiak, saihesteko eginak zirela erraiteko, besteak beste SRU legeari eta bere % 20 etxebizitza sozialei dagokienez. Eredu ona hiriko lehen magistratu batengandik. Nola ote nahi duzu sinesgarri izan ondotik!!! (jende ibiltariak, gazteak, etab...)

Herriko batzordeek beraz, ez ote dute araudirik? Barne araudian haien funtzionamenduari buruz ez da deus ageri.

Legebiltzarkideak batzorde horiek sortu baldin baditu, demokrazia arrangura bati erantzuteko izan da trukaketa eta lan esparru baten baitan.

Nahi dugu beraz bilana egin eta zuri galdera bat pausatu:

Gabriel Gouraud

- finantzen eta langilegoaren batzordea

Azken bilkura 2011ko uztailaren 11n, astelehenarekin.

Hobekien funtzionatzen duen eta maizena biltzen den batzordea da (herri kontseilu bakotx aitzin). Batzorde hauetan, aurkeztu dokumentuak berretsi eta analisatu baizik ez dugu egiten. Dokumentuen eraketan ez dugu inoiz parte hartzen; domaia da usu errexi hobe genitzakeelako. Batzutan ere kapitulu batzu integratuak dira batzorde honetan (azken bilkurako 11. pundua). Arte eta historiako hiri labela, kultura batzordearen esku uztea hobe litzateke.

- itsasoaren eta itsasbazterraren obren batzordea

Azken bilkura 2008ko apirilaren 8an, asteartearekin – Baliarik gabeko batzordea.

Maialen Tapia

- Irakaskuntza, formakuntza eta gazteriaren batzordea

- kulturaren batzordea

Ramuntxo Mintegui

- Ekonomia eta turismoaren batzordea

Azken bilkura 2011 ekainaren 30ean iragan da (4 pertsona) eta bost bilkura ukan ditugu 2008ko talde berriaz geroztik.

Beti oso interesgarria da Herri Elkargoari buruzko azalpenetan eta proiektuetan, baina informazio horiek ez ditugu herriko kontseiluetan atxematen, zergatik?

Dominique Duguet

- Hirigintza eta ondarearen batzordea

Urtean behineko bilkurak izan dira: 2009/01/05ean, 2010/01/05ean eta 2011ko urtarrilaren 5ean Hirigintza Tokiko Planari buruz. Geroztik, deus ez! Donibane Lohizuneko hiriaren adibidea hartu beharko zenuke hilabeteko bilkura batekin nun batzordeak eraikitze baimen guziak aztertzen dituen.

- ZPPAUP edo AVAP batzordea Ez dakigu justuki ZPPAUP batean girenez edota AVAP batean, bi urtez geroztik ez baitugu deus...

- *Ingurumenaren batzordea*

Orive Andereak 2011ko apirilaren 12an bildu gaitu bilan batentzat.

- *CAO*

Batzorde hortaz jadanik hitzegin dugu orgarekin

- *Erosketen batzordea,*

Legebiltzarkideak aholkatzen duen bezala erosкета publikoen batzorde bat sortzea nahi dugu.

Erran genezake ziburutar kudeaketa aski iluna dela. Gure buruei galdegiten diegu mahain honen inguruan zer egiten dugun ziburutar hautetsiei ez baldin badiezu errespeturik ematen eta ondorioz gu hautatu gaituzten ziburutarrei ere ez.

Gure galdera: Pentsatzen duzu egun batez Ziburuko batzordeak molde demokratikoago batez funtzionaraztea eta erosketen batzordea sortzea?

- 3) **Auzapez Jauna** Hendaiaiko A.C.E. (Association Citoyenne Environnement edo Ingurumen Herritar Elkarte), CADE eta Aunamindi elkarteek 2011ko martxoaren 8an gutun bat helarazi dizute zuri baita Hendaiaiko, Donibane Lohizuneko, Getariako, Bidarteko eta Biarritzeko lankideeri, zeinean eskatzen dizuten itsas bio-aniztasunaren aldeko pausu erabakigarri bat egitea Donostia eta Biarritze arteko korridore ekologiko proiektua sustengatuz, Atlantikoaren ipar-ekialdeko itsas ingurunea babesteko Hitzarmenaren baitan (OSPAR). “Océanak” eta Euskadiko Biologoek Elkargoak (COBE) dute proiektu hau aurkezten. Jaizkibel babesteko ez ezik, gure kostak eta Txingudiko badia babesteko ere juntazko elementu bat da. “Océana” gobernuz kanpoko erakundearentzat eta bere ikerketa zuzendariarentzat Europan, Ricardo Aguilar, korridore hau Donostia eta Biarritzeren artean euro-atlantikoko garrantzitsuena eta anitzena litzateke, funtsezkoa dena arrantza eta turismoarentzat. Jakin dezakegu, Auzapez Jauna, nun dagoen zure gogoeta korapilatsua eta gaurkoa den gai honi buruz? Proiektu horrekin bat zatoz?, ados baldin bazara, sustengatzeko prest zara? »

Auzapez Jaunak zehaztu du ez dela bere xedeetan ezeta bere esku ESPAINIAko eskumenetan baizik ez diren afereretan sartzea.